



# **2011. urterako Aurrekontu Orokorrren Foru Arau Proiektuan sartutako zerga neurrien txosten ekonomikoa eta genero eragina**



## Aurkibidea

1. Sarrera
2. Zergabilketan eragina duten arau aldaketen identifikazioa
3. Foru Arau Proiektuak dakartzan aldaketen eragina zergabilketan
4. Foru Arau Proiektuak dakartzan aldaketen genero eragina



## 1. SARRERA

Txosten honetan aztertzen da zenbateko eragina izango duten Gipuzkoako Foru Ogasunaren zergabilketan eta generoaren ikuspegitik Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2011rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Foru Arau Proiektuan aurreikusitako zerga neurriek. Neurri horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerga propioei dagozkie beti, txosten honen ondorioetarako. Kalkulatu nahi izan da zenbateraino aldatuko den zergabilketa, baldin eta gaur egun indarrean dagoen araudiaren ordeztatu arau proiektu berrian jasotzen diren aldaketa nagusiak aplikatzen badira. Hortaz, txosten honen xedea ez da proiektuan sartzen diren neurriak termino absolututan ebaluatzea, haiek aztertzea eta gaur indarrean daudenekin alderatzea baizik.

Indarrean dagoen araudia eta proposatzen dena alderatuz identifikatu ahal izan dugu zer diferentzia normatibok eragiten duten modu berezian zergabilketan. Era berean, zerrenda horretatik zergabilketan *a priori* gehien eragiten dutenak aukeratu dira; aintzat hartuak izateko behar besteko oinarri ekonomiko fidagarriak eskaintzen ez dutenak, ordea, hortik kanpo utzi ditugu.

Aldaketen eragina kuantifikatzeko, banan-banan azertu dira neurriak; gertatzen den aldea kuota likidoan konparatu dugu beti, hau da, indarrean dagoen araudiari jarraituz ateratzen den kuota dagokion aldaketa aplikatuta ateratzen denarekin konparatu da.

Txosten honek beste hiru atal ditu sarrera honekin batera. Bigarrenean, proiektuan jaso eta zergabilketan eragina duten neurri nagusiak zerrendatzen dira, betiere kalkulu fidagarriak egiteko datuak erabilita. Horretarako, indarrean dagoen idazkera eta proposatutakoa transkribatu ditugu. Hirugarren atalean, neurri bakoitzak zergabilketan izango duen eragina kuantifikatu da. Eta laugarren atalean, neurri fiskal horien generoari buruzko txostena aurkezten da.



## 2. ZERGABILKETAN ERAGITEN DUTEN ALDAKETEN IDENTIFIKAZIOA

<i>Foru Arau Proiektuaren eta indarrean dagoen araudiaren arteko aldeak</i>																																																																	
<i>Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga</i>																																																																	
<i>10/2006 Foru Araua</i>	<i>Foru Arau Proiektua</i>																																																																
<b>1. Murrizpena batera tributatzeagatik</b>																																																																	
<p>75. artikulua. Murrizpena batera tributatzeagatik.</p> <p>1. Foru arau honen 99. artikuluan xedatutakoari jarraiki batera tributatzea aukeratzen denean, oinarri ezargarri orokorra urteko 3.954 euro murriztuko da autolikidazio bakoitzeko.</p> <p>2. Aurreko apartatuan adierazitako murrizpena 3.434 eurokoa izango da, foru arau honek 100. artikulua 2. apartatuan jasotako familia unitateen kasuan.</p>	<p>75. artikulua. Murrizpena batera tributatzeagatik.</p> <p>1. Foru arau honen 99. artikuluan xedatutakoari jarraiki batera tributatzea aukeratzen denean, oinarri ezargarri orokorra urteko 4.033 euro murriztuko da autolikidazio bakoitzeko.</p> <p>2. Aurreko apartatuan adierazitako murrizpena 3.503 eurokoa izango da, foru arau honek 100. artikulua 2. apartatuan jasotako familia unitateen kasuan.</p>																																																																
<b>2. Oinarri orokorraren eskala</b>																																																																	
<p>77. artikulua. Oinarri likidagarri orokorraren eskala.</p> <p>1. Oinarri likidagarri orokorrari eskala honetan adierazten diren karga tasak aplikatuko zaizkio:</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>Oinarri likidagarri orokorra (goi muga)</th> <th>Kuota osoa</th> <th>Oinarri likidagarriaren gainerakoa (goi muga)</th> <th>Tasa</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Base liquidable general hasta</td> <td>Cuota integra</td> <td>Resto base liquidable hasta</td> <td>Tipo aplicable</td> </tr> <tr> <td>Euroak/Euros</td> <td>Euroak/Euros</td> <td>Euroak/Euros</td> <td>%</td> </tr> <tr> <td>0</td> <td>0</td> <td>14.570</td> <td>23</td> </tr> <tr> <td>14.570</td> <td>3.351,10</td> <td>14.570</td> <td>28</td> </tr> <tr> <td>29.140</td> <td>7.430,70</td> <td>14.570</td> <td>35</td> </tr> <tr> <td>43.710</td> <td>12.530,20</td> <td>18.730</td> <td>40</td> </tr> <tr> <td>62.440</td> <td>20.022,20</td> <td>Hortik gora /en adelante</td> <td>45»</td> </tr> </tbody> </table>	Oinarri likidagarri orokorra (goi muga)	Kuota osoa	Oinarri likidagarriaren gainerakoa (goi muga)	Tasa	Base liquidable general hasta	Cuota integra	Resto base liquidable hasta	Tipo aplicable	Euroak/Euros	Euroak/Euros	Euroak/Euros	%	0	0	14.570	23	14.570	3.351,10	14.570	28	29.140	7.430,70	14.570	35	43.710	12.530,20	18.730	40	62.440	20.022,20	Hortik gora /en adelante	45»	<p>77. artikulua. Oinarri likidagarri orokorraren eskala.</p> <p>1. Oinarri likidagarri orokorrari eskala honetan adierazten diren karga tasak aplikatuko zaizkio:</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>Oinarri likidagarri orokorra (goi muga)</th> <th>Kuota osoa</th> <th>Oinarri likidagarriaren gainerakoa (goi muga)</th> <th>Tasa</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Base liquidable general hasta</td> <td>Cuota íntegra</td> <td>Resto base liquidable hasta</td> <td>Tipo aplicable</td> </tr> <tr> <td>Euroak/Euros</td> <td>Euroak/Euros</td> <td>Euroak/Euros</td> <td>%</td> </tr> <tr> <td>0</td> <td>0</td> <td>14.860</td> <td>23</td> </tr> <tr> <td>14.860</td> <td>3.417,80</td> <td>14.860</td> <td>28</td> </tr> <tr> <td>29.720</td> <td>7.578,60</td> <td>14.860</td> <td>35</td> </tr> <tr> <td>44.580</td> <td>12.779,60</td> <td>19.100</td> <td>40</td> </tr> <tr> <td>63.680</td> <td>20.419,60</td> <td>Hortik gora /en adelante</td> <td>45»</td> </tr> </tbody> </table>	Oinarri likidagarri orokorra (goi muga)	Kuota osoa	Oinarri likidagarriaren gainerakoa (goi muga)	Tasa	Base liquidable general hasta	Cuota íntegra	Resto base liquidable hasta	Tipo aplicable	Euroak/Euros	Euroak/Euros	Euroak/Euros	%	0	0	14.860	23	14.860	3.417,80	14.860	28	29.720	7.578,60	14.860	35	44.580	12.779,60	19.100	40	63.680	20.419,60	Hortik gora /en adelante	45»
Oinarri likidagarri orokorra (goi muga)	Kuota osoa	Oinarri likidagarriaren gainerakoa (goi muga)	Tasa																																																														
Base liquidable general hasta	Cuota integra	Resto base liquidable hasta	Tipo aplicable																																																														
Euroak/Euros	Euroak/Euros	Euroak/Euros	%																																																														
0	0	14.570	23																																																														
14.570	3.351,10	14.570	28																																																														
29.140	7.430,70	14.570	35																																																														
43.710	12.530,20	18.730	40																																																														
62.440	20.022,20	Hortik gora /en adelante	45»																																																														
Oinarri likidagarri orokorra (goi muga)	Kuota osoa	Oinarri likidagarriaren gainerakoa (goi muga)	Tasa																																																														
Base liquidable general hasta	Cuota íntegra	Resto base liquidable hasta	Tipo aplicable																																																														
Euroak/Euros	Euroak/Euros	Euroak/Euros	%																																																														
0	0	14.860	23																																																														
14.860	3.417,80	14.860	28																																																														
29.720	7.578,60	14.860	35																																																														
44.580	12.779,60	19.100	40																																																														
63.680	20.419,60	Hortik gora /en adelante	45»																																																														



3. Kenkari orokorra eta jarduera ekonomikoa sustatzeko kenkaria	
VII. TITULUA. II. KAPITULUA: Kenkari orokorra	VII TITULUA. II KAPITULUA: Kenkari orokorra
80. artikulua. Kenkari orokorra.  Urteko 1.301 euroko kenkaria egingo dute zergadunek. Autolikidazio bakoitzeko egin behar da kenkari hau.	80. artikulua. Kenkari orokorra.  Urteko 1.327 euroko kenkaria egingo dute zergadunek. Autolikidazio bakoitzeko egin behar da kenkari hau.
4. Kenkaria ondorengo ahaideengatik	
81. artikulua: Kenkaria ondorengo ahaideengatik	81. artikulua: Kenkaria ondorengo ahaideengatik
81. artikulua: Kenkaria ondorengo ahaideengatik  1. Kenkari hau egingo da zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko:  a) 547 euro urtean, lehenengoagatik. b) 677 euro urtean, bigarrenagatik. c) 1.145 euro urtean, hirugarrenagatik. d) 1.353 euro urtean, laugarrenagatik. e) 1.769 euro urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzarengatik.  2. Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo ahaide bakoitzeko, 313 euroko kenkari osagarria egingo da urtean, aurreko apartatuan jasotakoaren arabera dagokionaz gain.	81. artikulua: Kenkaria ondorengo ahaideengatik  1. Kenkari hau egingo da zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko:  a) 558 euro urtean, lehenengoagatik. b) 691 euro urtean, bigarrenagatik. c) 1.168 euro urtean, hirugarrenagatik. d) 1.380 euro urtean, laugarrenagatik. e) 1.804 euro urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzarengatik.  2. Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo ahaide bakoitzeko, 319 euroko kenkari osagarria egingo da urtean, aurreko apartatuan jasotakoaren arabera dagokionaz gain.
5. Kenkaria aurreko ahaideengatik	
83. artikulua: Kenkaria aurreko ahaideengatik	83. artikulua: Kenkaria aurreko ahaideengatik
1. Urte natural osoan zergadunarekin modu jarraitu eta iraunkorren bizi den aurreko ahaide bakoitzeko 261 euroko kenkaria egin daiteke...	1. Urte natural osoan zergadunarekin modu jarraitu eta iraunkorren bizi den aurreko ahaide bakoitzeko 266 euroko kenkaria egin daiteke...
6. Kenkaria desgaitasunarengatik	
84. artikulua. Kenkaria desgaitasunarengatik.	84. artikulua. Kenkaria desgaitasunarengatik.



1. Zergadun desgaitu bakoitzeko, jarraian zehazten den kenkaria aplikatuko da arauz ezartzen den minusbaliotasun mailaren eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntzaren arabera:

Kenkaria (euroak) /	Minusbaliotasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntza
850	Minusbaliotasuna %33 edo handiagoa eta %65etik behera
1.200	Minusbaliotasuna %65koa edo gehiago
1.400	75%koa edo gehiago denean hirugarren pertsonen laguntzagatik 15 eta 39 puntu bitartean lortuta
2.000	75%koa edo gehiago denean hirugarren pertsonen laguntzagatik 40 puntu edo gehiago lortuta

1. Zergadun desgaitu bakoitzeko, jarraian zehazten den kenkaria aplikatuko da arauz ezartzen den minusbaliotasun mailaren eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntzaren arabera:

Kenkaria (euroak) /	Minusbaliotasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntza
867	Minusbaliotasuna %33 edo handiagoa eta %65etik behera
1.224	Minusbaliotasuna %65koa edo gehiago
1.428	75%koa edo gehiago denean hirugarren pertsonen laguntzagatik 15 eta 39 puntu bitartean lortuta
2.040	75%koa edo gehiago denean hirugarren pertsonen laguntzagatik 40 puntu edo gehiago lortuta

## 7. Mendetasunaren kenkaria

85. artikulua. Mendetasunaren kenkaria.

85. artikulua 1. apartatua:

1. Mendetasuneko pertsonatzat hartutako zergadun bakoitzeko, jarraian adierazten diren kenkariak aplikatuko dira, arauz ezarriko den mendetasun mailaren arabera:

Kenkaria(euroak)	Mendetasun maila
1.200	Mendetasun txikia
1.400	Mendetasun ertaina
2.000	Mendetasun handia

Gainera, mendetasunaren kalifikazioa Euskal Autonomia Erkidegoak edo Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako xedapenen arabera jasota izanik, kalifikazio hori ez badator bat goian aipatutako mendetasun mailekin, mendetasuneko pertsonatzat kalifikatutakoek 850 euroko kenkaria egin ahal zango dute arauz ezarriko diren baldintzei jarraikiz.

85. artikulua. Mendetasunaren kenkaria.

85. artikulua 1. apartatua:

1. Mendetasuneko pertsonatzat hartutako zergadun bakoitzeko, jarraian adierazten diren kenkariak aplikatuko dira, arauz ezarriko den mendetasun mailaren arabera:

Kenkaria(euroak)	Mendetasun maila
1.224	Mendetasun txikia
1.448	Mendetasun ertaina
2.040	Mendetasun handia

Gainera, mendetasunaren kalifikazioa Euskal Autonomia Erkidegoak edo Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako xedapenen arabera jasota izanik, kalifikazio hori ez badator bat goian aipatutako mendetasun mailekin, mendetasuneko pertsonatzat kalifikatutakoek 867 euroko kenkaria egin ahal zango dute arauz ezarriko diren baldintzei jarraikiz.

## 8. Kenkaria adinarengatik

86. artikulua. Kenkaria adinarengatik.

86. artikulua. Kenkaria adinarengatik.



<p>86. artikulua. Kenkaria adinarengatik.</p> <p>65 urtetik gorako zergadun bakoitzeko, 313 euroko kenkaria egingo da.</p> <p>Zergadunak 75 urte baino gehiago baditu, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria 573 eurokoa izango da.</p>	<p>86. artikulua. Kenkaria adinarengatik.</p> <p>65 urtetik gorako zergadun bakoitzeko, 319 euroko kenkaria egingo da.</p> <p>Zergadunak 75 urte baino gehiago baditu, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria 584 eurokoa izango da.</p>
<p><b>Zenbait aldaketa eman dira:</b></p> <ol style="list-style-type: none"><li><b>1. Zergaren tarifa deflaktatu egin da.</b></li><li><b>2. Batera tributatzeagatik kenkaria, kenkari orokorra eta kenkari familiar eta pertsonalen zenbatekoak deflaktatu dira.</b></li></ol>	



### 3. FORU ARAU PROIEKTUAK DAKARTZAN ALDAKETEN ERAGINA ZERGABILKETAN

Kalkulu oinarri gisa erabilitako datu baseak 2009ko ekitaldikoa da (2010ean egindako aitortpena). Foru Arau Proiektuan jasotako neurriek 2012an aurkeztuko diren 2011ko ekitaldiko aitortpenetan izango dute eragina.

Kalkuluaren metodologia funtsean da simulazio sistema bat zergadunek jarritako datu basearen gainean aplikatzea. Mikrosimulazioko metodo orokorra erabili ezin den neurrietarako, zerga izaerako estatistiketatik abiatuta egiten dira estimazioak.

Zenbatekoak eurotan

Neurria	Zergabilketako eragina
<b>1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga</b>	
1.1. Murrizpena batera tributatzeagatik	-1.306.657
1.2. Tarifa	-7.668.960
1.3. Kenkari orokorra	-7.590.871
1.4. Kenkaria ondorengo ahaideengatik	-1.512.252
1.5. Kenkaria aurreko ahaideengatik	-10.832
1.6. Kenkaria desgaitasunarengatik	-299.861
1.7. Kenkaria mendetasunarengatik	-132.830
1.8. Kenkaria adinarengatik	-490.337
<b>Guztira</b>	<b>-19.012.599</b>

Aldi berean, zergabilketaren eragin osoa oinarri ezargarriaren tarteen arabera banatzen badugu, ondoko emaitza lortzen dugu:

Oinarri ezargarriaren tartekako zergabilketa eraginaren banaketa

Oinarri ezargarri tarteak	Kopurua	Kostu orokorra	% (kop.)	% kostutan
15.000 arte	129.345	1.217.646	33,2	6,4
15.000tik 19.999ra	61.575	2.583.749	15,8	13,6
20.000tik 24.999ra	53.910	2.806.712	13,8	14,8
25.000tik 29.999ra	42.289	2.327.754	10,9	12,2
30.000tik 34.999ra	32.472	2.350.592	8,3	12,4
35.000tik 39.999ra	21.720	1.861.560	5,6	9,8
40.000tik 44.999ra	13.855	1.250.649	3,6	6,6
45.000tik 49.999ra	8.432	881.062	2,2	4,6
50.000tik 54.999ra	5.381	628.697	1,4	3,3
55.000tik 59.999ra	3.945	489.301	1,0	2,6
60.000tik aurrera	16.431	2.614.877	4,2	13,8
<b>Guztira</b>	<b>389.355</b>	<b>19.012.599</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Zergaren izaera progresiboak berak ekartzen du oinarri ezargarriaren goiko tartetek zergari ekarpen handiagoa egitea, nahiz eta aitortzaileen kopuru txikiagoa bildu. Kasu





honetan ere, oinarri zergagarriaren goiko tartetek zergabilketan eragin handiagoa sortuko dute.

## **4. FORU ARAU PROIEKTUAK DAKARTZAN ALDAKETEN GENERO ERAGINA**

### **4.1. Txostenaren oinarriak eta helburua**

Euskal Autonomia Erkidegoko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, foru administrazioei dagokie foru legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren arabera. Era berean, 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan ezarritakoaren arabera, izaera orokorreko xedapenen aurreproiektuak egiteko prozeduran, bertan ezarritako neurrien genero inpaktuari buruzko txosten bat bildu beharko da eranskin gisa.

### **4. 2. Generoaren ikuspegitik kontuan hartzekoak diren neurriak identifikatzea**

Dagokigun Foru Arau Proiektuak zerga-araubidean zenbait aldaketa ekarriko ditu. Zentzu horretan, aldaketa horien gehiengoak genero eraginik izango ez badu ere, zenbait neurri identifikatu ahal izan dira pertsonengan, emakume nahiz gizonengan, eragin zuzena dutenak. Ondoren zehazten dira:

- 10/2006 Foru Araua, abenduaren 29koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena.

PFEZaren tarifa %2 deflaktatuko da, bai eta kenkari orokorra eta kenkari familiar eta pertsonalak ere, inflazioaren eragina zergadunen zama fiskaletatik kanpo uzteko helburuarekin.

Aldaketa honek gizon eta emakumeei zuzenean eragiten dienez, genero berdintasunaren printzipioa integratzeko KONTUAN HARTU BEHARREKOA da.

Dena den, aipatu beharra dago, neurri unibertsal baten aurrean gaudela, hau da, ez dago talde zehatz bati bideratua eta bere helburua zergadun ororen erosketa-ahalmena eta zerga-zama maila mantentzea da. Ez da, beraz, aldeztatik genero eragin negatiborik aurreikusten, neurri tekniko huts baten aurrean baikaude, zerga inflazioaren aldaketetara egokituko duena.



### 4.3. Genero inpaktuaren balorazioa

Araudian emango diren aldaketen genero eragina kalkulatzeko orduan, 2009. urteko PFEZ aitortzen datuak (2010ean aurkeztutakoak) erabili dira, jatorrizko kuota likidoaren eta deflaktazioen ondoren sortuko litzatekeen kuota likidoa konparatu ditugularik.

Kalkuluetarako aplikatutako metodologiari dagokionez, garrantzitsua da aipatzea nola egin den datuen sexukako banaketa. Honela, familia unitate barruan ez dauden subjektu pasiboen aitortzenak, banakakoak eta guraso bakarreko baterako aitortzenak aitortzailearen sexupean erregistratu ditugu. Ezkontide biko baterako aitortzenetan, aldiz, kuota likidoa sexu bitan banatu da erdibana, bi ezkontideei kopuru berean dagokiola kontutan hartuz. Era honetara, bi ezkontideko 72.432 baterako aitortzen aurkeztu badira, gure kalkuluetarako 72.432 emakume eta beste hainbeste gizon kontutan hartu ditugu, talde bakoitzari kuota likidoen erdia egotziz.

Aurrekoa argitu eta gero, lortutako emaitzak hauexek dira:

Neurria	Kuota Likidoa EMAKUMEA K	% Emak.	Kuota Likidoa GIZONAK	% Gizon	Kuota Likidoa OSOA
	229.595	49,7	232.192	50,3	461.787
Kuota likidoaren deflaktaziorik GABE	577.172.613	39,92	868.600.845	60,08	1.445.773.458
Kuota likidoaren deflaktazioa EGINEZ	568.923.521	39,88	857.837.338	60,12	1.426.760.859
ZERGABILKETAN ERAGINA	8.249.092	43,4	10.763.507	56,6	19.012.599

Aurreko koadroan ikus dezakegunez, zergadun kopurua antzeko proportzian banatzen bada ere (%49,7 emakumeak, %50,3 gizonak), gizonen zergari egiten dioten ekarpena (kuota likidoari dagokionez) nabarmen handiagoa da. Hori gizonen oinarri ezargarri handiagoei eta PFEZaren izaera progresiboak sortua da. Dena den, deflaktazioak ez du aldaketa nabarmenik ekarriko kuota likido osoaren sexukako banaketan, portzentajeak finko mantentzen baitira. Hau dela eta, deflaktazioaren eragina **neutrotzat** jo dugu.

Zergabilketan eragin osoa sexuka banatuz gero, portzentajeek emakumeen aldera egiten dute nolabait: eraginaren %43,4 dagokie eta kuota likidoari egiten dioten ekarpena, aldiz, %39,9koa da. Beste era batera azalduz, emakumeen kuota likidoa deflaktazioaren ondorioz %1,43 murriztuko litzateke eta, gizonena, berriz, %1,24 jaitsiko litzateke. Eragin osoa biltzen dituen kontzeptu ezberdinetan banatuz gero, ondoko koadroa lortzen dugu:



Neurria	Zergabilketan eragina	%	Zergabilketan eragina	%	Zergabilketan eragina
	EMAKUMEAK	Emak.	GIZONAK	Gizon.	OSOA
	229.595	49,7	232.192	50,3	461.787
Murrizpena batera tributatzeagatik	655.422	50,2	651.234	49,8	1.306.657
Tarifa	3.018.825	39,4	4.650.135	60,6	7.668.960
Kenkari orokorra	3.424.598	45,1	4.166.273	54,9	7.590.871
Kenkaria ondorengo ahaideengatik	706.286	46,7	805.965	53,3	1.512.252
Kenkaria aurreko ahaideengatik	5.096	47,0	5.736	53,0	10.832
Kenkaria desgaitasunarengatik	131.103	43,7	168.758	56,3	299.861
Kenkaria mendetasunarengatik	67.696	51,0	65.134	49,0	132.830
Kenkaria adinarengatik.	247.886	50,6	242.451	49,4	490.337
<b>Guztira</b>	<b>8.249.092</b>	<b>43,4</b>	<b>10.763.507</b>	<b>56,6</b>	<b>19.012.599</b>

Aipatutako progresibitateak, gizonek PFEZari ekarpen handiagoa egitea dakar eta, aldi berean, tarifaren deflaktazioaren eragina neurri handiagoan jaso eta eskuragarri dauden kenkariak gehiago aprobetxatu ditzakete.

Zentzu horretan, deigarria gertatzen da emakumeek gizonei nola gaintzen dieten adineko kenkariak aplikatzerakoan (luzaroago bizi ohi dira), bai eta mendetasunarengatik kenkarien kasuan (mendetasunean dauden pertsonen ardura beraien gain egon da tradizionalki).

Gizonek, bestalde, nabarmen gaintzen dituzte emakumeak tarifari dagokionez (batez beste, emakumeek baino laneko eta jardueretako etekin handiagoak baitituzte), bai eta desgaitasunarengatik kenkarian.

Agerian gelditutako desberdintasunak, hala ere, egiturazkoak dira, eta ezin da esan deflaktazioak sortuak direnik

Donostia, 2010eko abenduaren 1a

**AZTERLANEN ATALEKO BURUA**

**O.I.**

**ERAKUNDEEKIKO KONPROMISOEN ZERBITZUBURUA**